

Lan-poltsa

Toki Administrazioiko Idazkaritza, Idazkaritza-Kontuhartzaitza eta Kontuhartzaitza-Diruzaintza

1. ariketa, A zatia.

A eredua

2015/12/19

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Q

2 0 1 2



Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

- 1 HERRI ADMINISTRAZIOEN ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN LEGEAK 31-1 ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, PROZEDURAN EZ DIRA INTERESDUNAK IZANGO...**
- 1a) Prozedurari hasiera eman diotenak, norbanakoen nahiz taldeen eskubide edo interes legitimoen titular modura.
- 1b) Ebazpenak eraginpean har ditzakeen norbanakoen nahiz taldeen bidezko interesak dituztenak eta prozeduran aurkezten direnak, behin betiko ebazpena eman arte.
- 1c) Eskubide eta interes legitimoen titular ez diren arren, prozeduran agertzen direnak.
- 1d) Prozedurari hasiera eman gabe ere, hartzen den erabakiak eraginpean har ditzakeen eskubideak dituztenak.
- 2 JARRAIAN ADIERAZITAKOETATIK, ZEIN DA ERREKURTSOAK JARTZEKO ORDEZKARI IZAERA EGIAZTATZEKO LEGEZKO BIDEA?**
- 2a) Hurrengo aukera guztiak zuzenak dira.
- 2b) Ordezkaritzaren agiri publikoa.
- 2c) Ordezkaritzaren agiri pribatua, notarioaren sinadurarekin.
- 2d) Ordezkaritzaren "apud acta" ahalordea.
- 3 ERREKURTSOA EBAZTEA DAGOKION ORGANOAK AURKARATUTAKO EGINTZAREN BETEARAZPENA ETETEKO AUKERA IZANGO DU, BALDIN ETA HONAKO EGOERETAKO BAT GERTATZEN BADA:**
- 3a) Egintzaren aurka egitea bidezko arrazoiren batean oinarritzen denean.
- 3b) Interesduna bera aurkezten denean auzian.
- 3c) Zehapen-prozedura bat denean.
- 3d) Betearazpenak konpondu ezin diren edo nekez konpon daitezkeen kalteak eragin ahal baditu.
- 4 HERRI ADMINISTRAZIOEN ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN LEGEAK 102. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, PROZEDURA ADMINISTRAZIOAREN KABUZ HASTEN DENEAN, IRAUNGI EGINGO DA BALDIN ETA HASI DENETIK EPE JAKIN BAT BETETZEN BADA EBAZPENIK EMAN GABE. ZEIN DA EPE HORI?**
- 4a) 1 hilabete
- 4b) 2 hilabete
- 4c) 3 hilabete
- 4d) 4 hilabete
- 5 HONAKO HAUETATIK ZEIN EZ DA ADMINISTRAZIO-PROZEDURAREN ALDIETAKO BAT?**
- 5a) Hasiera
- 5b) Amaiera
- 5c) Instrukzioa
- 5d) Antolaketa

6 HERRI ADMINISTRAZIOEN ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN LEGEAK 43. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, EPEA IGARO DELAKO ESKARIA PRESUNTZIOZ EZETSI IZANAREN AURKA JARRI DEN GORAKO ERREKURTSOA JARRI BADA...

- 6a) Errekurtsoa baietsizat joko da baldin eta epe barruan ebazpen adierazia eman ez bada.
- 6b) Errekurtsoa ezetsizat joko da baldin eta epe barruan ebazpen adierazia eman ez bada.
- 6c) Ezetsizat joko da, baldin eta ez bada presuntziosko egintzak egiaztatzea eskatu.
- 6d) Baietsizat joko da beti, Administrazioa behartuta baitago ebazpena ematera.

7 SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGEAREN TESTU BATEGINAK (3/2011 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUA) 5. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, LEGE-TESTU HORRETAN XEDATUTAKOAK ARAUTUKO DITU SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUAK KASU HAUETAN:

- 7a) Sektore publikoko ente, organismo eta entitateek egiten dituzten obra-kontratuak, obra publikoen emakida-kontratuak, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak, hornidura-kontratuak eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzakontratuak direnean.
- 7b) Nazioarteko erakunderen baten berariazko prozedura bati jarraituz esleitutako kontratuak eta hitzarmenak.
- 7c) Funtzionario publikoen zerbitzu-harremanak, eta laneko legedian araututako kontratuak.
- 7d) Estatuak beste estatu batzuekin nahiz nazioarteko zuzenbide publikoko entitateekin egiten dituen akordioak.

8 SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGEAREN TESTU BATEGINAK (3/2011 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUA) 10. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, ZERBITZU-KONTRATUAK DIRA:

- 8a) Herri-administrazioak bere eskumenpeko modura hartua dauka zerbitzu jakin batzuk eskaintzeko ardura. Bada, kontratu horien bidez, administrazio batek pertsona natural baten esku uzten du zerbitzu horietako baten kudeaketa.
- 8b) Herri-administrazioak bere eskumenpeko modura hartua dauka zerbitzu jakin batzuk eskaintzeko ardura. Bada, kontratu horien bidez, administrazio batek pertsona natural edo juridiko baten esku uzten du zerbitzu horietako baten kudeaketa.
- 8c) Objektuzat egiteko prestazio bat dutenak, jarduera bat gauzatuz gauzatzen dena, edo obraz edo horniduraz besteko emaitza lortzera bideratutako egiteko prestazio bat dutenak.
- 8d) Xede hau dutenak: kontzesiodunak obra-kontratuaren berezko zenbait prestazio gauzatzea, lehendik ziren eraikuntzak berriztatzea eta konpontzea, besteak beste.

9 SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGEAREN TESTU BATEGINAK (3/2011 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUA) 138. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, KONTRATUAK ESLEITZEKO PROZEDURA, ESKUARKI, HONAKO HAU IZANGO DA:

- 9a) Elkarrizketa lehiakorra
- 9b) Irekia eta murriztua.
- 9c) Negoziatua.
- 9d) Epaimahai bati gomendioa.

- 10 ADMINISTRAZIOEN ONDARE ERANTZUKIZUNARI BURUZKO PROZEDUREN ERREGELAMENDUAK (429/1993 ERREGE DEKRETUA) 4. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, ONDARE-ERANTZUKIZUNEN PROZEDURA HASIKO DA...**
- 10a) Ofizioz bakarrik.
10b) Interesdunen eskariz bakarrik.
10c) Ofizioz edo interesdunak eskatuta.
10d) Salaketa edo arrazoitutako mozioz.
- 11 ADMINISTRAZIOEN ONDARE ERANTZUKIZUNARI BURUZKO PROZEDUREN ERREGELAMENDUAK (429/1993 ERREGE DEKRETUA) 8. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA,**
- 11a) Prozeduraren edozein unetan, organo eskudunak prozeduraren amaiera itundua adostu ahal izango du interesdunarekin, kalte-ordainei buruzko akordio batera iritsita.
11b) Prozeduraren edozein unetan eta instrukzio-egileak proposatuta, organo eskudunak prozeduraren amaiera itundua adostu ahal izango du interesdunarekin, kalte-ordainei buruzko akordio batera iritsita.
11c) Prozedurari ezingo zaio amaiera itundua eman.
11d) Prozeduraren edozein unetan, entzunaldia izan baino lehenago, organo eskudunak prozeduraren amaiera itundua adostu ahal izango du interesdunarekin, kalte-ordainei buruzko akordio batera iritsita.
- 12 ADMINISTRAZIOEN ONDARE ERANTZUKIZUNARI BURUZKO PROZEDUREN ERREGELAMENDUAK (429/1993 ERREGE DEKRETUA) 17. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, 30 EGUN IGAROTA EZ BADA EBAZPENIK EMAN, AKORDIORIK FORMALIZATU EDO PROZEDURA OROKORRAREN ETENA KENDU, ULERTU BEHARKO DA EBAZPENA...**
- 12a) Zuzenbidearen aurkakoa dela.
12b) Interesdunari jakinarazi behar zaiola.
12c) Partikularraren interesen aurkakoa dela.
12d) Epez kanpo eman dela.
- 13 UDALERRIEI BESTE BATZUEKIN MANKOMUNITATEAN ELKARTZEKO ESKUBIDEA AITORTZEN ZAIE. ZERTARAKO?**
- 13a) Beren eskumeneko zenbait obra eta zerbitzu elkarrekin burutzeko.
13b) Ordenamendu juridikoak ezarritako obrak edo zerbitzuak elkarrekin burutzeko.
13c) Udalez gaindiko intereseko obra eta zerbitzuak elkarren artean burutzeko.
13d) Edozein obra edo zerbitzu elkarren artean burutzeko, baldin eta sektoreko legediak ez badu beren-beregi baztertzen aukera hori.
- 14 NORK ONARTU BEHAR DITU TOKIKO ERAKUNDE AUTONOMOEN ETA TOKIKO ENPRESA-ENTITATE PUBLIKOEN ESTATUTUAK?**
- 14a) Alkateak
14b) Alkateak, edo hark eskuordetzen duen zinegotziak
14c) Udalbatzak.
14d) Zuzendaritza Batzordeak tokiko erakunde autonomoetan eta Administrazio Kontseiluak tokiko enpresa-entitate publikoetan.

15 BAIEZTAPEN HAUEN ARTEAN, ZEIN DA EGIAZKOA?

- 15a) Toki-araubidearen oinarrizko legeriak berariaz zehazten ditu toki-erakundeei dagozkien ahalak.
- 15b) Toki-araubidearen oinarrizko legeriarekin bat, toki-erakunde guztiek dituzte ahal berberak.
- 15c) Autonomia-erkidegoen araudiak ahalak esleie diezazkieke toki-erakundeei.
- 15d) Artxipiela-goetako irlak ez dira lurralde-mailako toki-erakundeak

16 TOKI-ARAUBIDEAREN OINARRIZKO LEGERIAREN ARABERA, TOKI-ERAKUNDEEK DUTEN JABETZA KENTZEKO AHALA...

- 16a) Udalerriei, probintzietan eta mankomunitateei dagozkie.
- 16b) Udalerriei, probintzietan eta eskualdeei dagozkie.
- 16c) Udalerriei, probintzietan eta metropolialdeei dagozkie.
- 16d) Udalerriei eta probintzietan dagozkie.

17 TOKI-ORDENANTZAK ONARTZEARI DAGOKIONEZ:

- 17a) Udal-erregelamendu organikoak zehaztutako udal-organoari dagokio, eta halakorik ezean, gobernu-batzarrari edo, osoko-bilkurari, organo hori ez dagoen udalerrietan.
- 17b) Osoko bilkurari edo gobernu-batzarrari dagokio, ordenantzak araututako gaiaren arabera.
- 17c) Toki-erakundeko osoko bilkurari dagokio araubide komuneko udalerrietan, eta gobernu-batzarrari biztanle-kopuru handiko udalerrien araubidea aplikagarri duten udalerrietan.
- 17d) Osoko bilkurari dagokio, nolahi ere.

18 TOKI-ERAKUNDEEN ONDASUNEI DAGOKIENEZ, ADIERAZI ERANTZUN ZUZENA.

- 18a) Jabari publikoko udal-ondasun bat ondare-ondasuntzat joko da hogeita hamar urte baino gehiago egon bada erabilera edo jabari publikora atxiki gabe.
- 18b) Udalaren ondare-ondasun bat jabari publikoko ondareztzat joko da hogeita hamar urte baino gehiago egon bada erabilera publikora atxikita.
- 18c) Obra-proiektu bat behin betiko onartzeko, ondare-ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzeko espedienteak ireki behar dira, proiektuaren arabera erabilera edo zerbitzu publikora atxiki behar diren ondasunak, hain justu.
- 18d) Herri-ondasunen kalifikazioa kentzeko, nola nahi ere, dagokion espedienteak izapidetu behar dira.

19 MUGAK JARTZEKO TOKI-ERAKUNDEEK DUTEN PRERROGATIBA BAT ETORRIKO DA...

- 19a) Mendien legeriarekin, nolahi ere.
- 19b) Hirigintza eta ingurumenari buruzko legeriarekin.
- 19c) Hirigintza eta ingurumenari buruzko legeriarekin, eta kosta-legeriarekin, hala badagokio.
- 19d) Estatuaren ondareari buruzko legeriarekin.

20 TOKI-ERAKUNDEEN HERRI-ONDASUNAK:

- 20a) Jabari publikoko ondasunak dira.
- 20b) Ondare-ondasunak dira.
- 20c) Ez dira toki-erakundearen ondasunak, bertako auzotar guztien ondasunak baizik.
- 20d) Auzotar guztien aprobetxamendu erkiderako izan behar dute.

21 TOKIKO TRIBUTUAK ARAUTZEN DITUZTEN ORDENANTZA FISKALAK, NOIZ HASIKO DIRA APLIKATZEN?

- 21a) Prest dauden unean, eta nola nahi ere, Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren aurrekontu-ekitaldiaren barruan edo hurrengo ekitaldian.
- 21b) Aldizkari Ofizialean behin betiko argitaratzen diren unean, ordenantzetan bertan bestelako datarik adierazten ez bada.
- 21c) Aldizkari Ofizialean behin betiko argitaratu eta biharamunean, ordenantzetan bertan bestelako datarik adierazten ez bada.
- 21d) Aldizkari Ofizialean behin betiko argitaratzen diren aurrekontu-ekitaldiaren hurrengo ekitaldiaren hasieran, ordenantzetan bertan bestelako datarik adierazten ez bada.

22 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOAN, TOKI-EREMUAN PROGRAMAK EGITEA...

- 22a) Foru-aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan egingo da.
- 22b) Dena delako mankomunitateek eta foru-aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan egingo da.
- 22c) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak hartarako emandako jarraibideen esparruaren barruan egingo da.
- 22d) Aurreko guztien eta Gobernuaren programazio orokorraren barruan egingo da.

23 AURREKONTU EGONKORTASUNARI ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNARI BURUZKO APIRILAREN 27KO 2/2012 LEGE ORGANIKOAK, HONAKO PRINTZIPIO HAUEK DESKRIBATZEN DITU II. KAPITULUAN:

- 23a) Aurrekontu egonkortasuna, finantza iraunkortasuna, hainbat urtetarako izatea, gardentasuna, efizientzia baliabide publikoak esleitu eta erabiltzerakoan, erantzukizuna eta erakundeen arteko leialtasuna.
- 23b) Aurrekontu egonkortasuna, finantza iraunkortasuna, urterokotasuna, efizientzia baliabide publikoak esleitu eta erabiltzerakoan, erantzukizuna eta uniformetasuna.
- 23c) Aurrekontu egonkortasuna, finantza iraunkortasuna, urterokotasuna, efizientzia baliabide publikoak esleitu eta erabiltzerakoan, espezializazioa eta etengabeko kudeaketa.
- 23d) Aurrekontu egonkortasuna, finantza iraunkortasuna, zuhurtzia, gardentasuna, efizientzia baliabide publikoak esleitu eta erabiltzerakoan eta desafektazioa.

24 ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN AURREKONTU-EGONKORTASUNTZAT ULERTUKO DA:

- 24a) Defizitaren, zor publikoaren eta berankortasunaren mugen barruan orain eta etorkizunean gastu-konpromisoak finantzatzeko gaitasuna.
- 24b) Aurrezki garbiaren eta zor publikoaren helburuen barruan orain eta etorkizunean gastu-konpromisoak finantzatzeko gaitasuna.
- 24c) Koiunturazko superabiteko edo orekako egoera.
- 24d) Egiturazko superabiteko edo orekako egoera.

25 GASTUEN AURREKONTUAREN KUDEAKETAN, NORENA DA ORDAINKETAK AGINTZEAREN EGINKIZUNA?

- 25a) Udalbatzaren osoko bilkurarena.
- 25b) Toki-erakundeko lehendakariarena.
- 25c) Esku-hartzailearena, lehendakariaren agintaritzapean.
- 25d) Horiatariko bat berarena ere ez.

26 AURREKONTU-APLIKAZIOA JARRAIAN ZEHAZTUTAKO SAILKAPENEN ARABERA DEFINITUKO DA, GUTXIENEZ:

- 26a) Programen eta sailkapen ekonomikoaren arabera.
- 26b) Sailkapen funtzionala eta ekonomikoaren arabera.
- 26c) Sailkapen organikoa eta funtzionalaren arabera.
- 26d) Programen arabera eta sailkapen organikoaren arabera.

27 ZEIN DA AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ONARTZEKO ESKUMENA DUEN ORGANOA?

- 27a) Udalbatzaren osoko bilkura.
- 27b) Toki-erakundeko lehendakaria.
- 27c) Kontuen Batzorde Berezia.
- 27d) Kontu-hartzailea.

28 TOKI-ERAKUNDEAREN AURREKONTUAREN JENDAURREKO INFORMAZIORAKO EPEA, ZEIN DA?

- 28a) 10 egun.
- 28b) 15 egun.
- 28c) 20 egun.
- 28d) Hilabete.

29 ARABAN, BIZKAIAN ETA GIPUZKOAN, TOKI-ERAKUNDEKO LEHENDAKARIAK UDALBATZAKO OSOKO BILKURARI BIDALI BEHARKO DIO IGARO DEN URTEALDI-ZATIARI DAGOKION FINANTZA- ETA AURREKONTU-INFORMAZIOA...

- 29a) Gehienez, hiru hilez behin.
- 29b) Gutxienez, hiru hilez behin.
- 29c) Gehienez, sei hilez behin.
- 29d) Gutxienez, sei hilez behin.

30 TOKI-ERAKUNDEEN KONTABILITATEA ANTOLATZEKO ORDUAN, HONAKO HELBURU HAU IZANGO DA KONTUAN, BESTEAK BESTE:

- 30a) Toki-erakundearen diruzaintzako mugimenduak eta egoera erregistratzea.
- 30b) Kutxa-batasunaren printzipioa betetzea, aurrekontuetako eta aurrekontuetatik kanpoko eragiketek sortutako funts eta balore guztiak zentralizatuz.
- 30c) Toki-erakundeak emandako abalen erantzule izatea.
- 30d) Eskubideak ingresatzea eta obligazioak ordaintzea.

31 JARRAIAN ADIERAZITAKO BAIEZTAPENETATIK, ZEIN DA ZUZENA?

- 31a) Kontu-hartzaitzaren txostenekin eta aurkeztu diren erreklamazio eta eragozpenekin batera, Kontu Orokorra lehendakariari aurkeztuko zaio onartua izan dadin, hala badagokio.
- 31b) Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenarekin batera, Kontu Orokorra udalbatzaren osoko bilkurari aurkeztuko zaio onartua izan dadin, hala badagokio.
- 31c) Kontuen Batzorde Bereziaren txostenekin eta aurkeztu diren erreklamazio eta eragozpenekin batera, Kontu Orokorra udalbatzaren osoko bilkurari aurkeztuko zaio onartua izan dadin, hala badagokio.
- 31d) Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenarekin batera, Kontu Orokorra Kontuen Batzorde Bereziari aurkeztuko zaio onartua izan dadin, hala badagokio.

32 HONDASUN HIGIEZINEN ZERGA...

- 32a) Zuzeneko tributua da, pertsonala, ondasun higiezinaren jabetza zergapetzen duena.
- 32b) Zuzeneko tributua da, izaera errealekoa, ondasun higiezinak edukitzea zergapetzen duena.
- 32c) Zeharkako tributua da, izaera errealekoa, ondasun higiezinaren balio-gehikuntza zergapetzen duena.
- 32d) Zuzeneko tributua da, izaera errealekoa, ondasun higiezinaren balioa zergapetzen duena.

33 TOKIKO ERAKUNDEEK EZINGO DITUZTE HONAKO HAUEN TASAK EXIJITU:

- 33a) Bide publikoen garbiketa-zerbitzuagatik.
- 33b) Ezartzeagatik edo gehitzeagatik kontribuzio berezia duten zerbitzuengatik.
- 33c) Alderen batek eskatuta emandako agiriengatik.
- 33d) Hileta-zerbitzuengatik.

34 NOLA ESATEN ZAIE ZERGA-IZAERA DUTEN DIRU-SARREREI, BALDIN ETA ZERBITZU PUBLIKOAK GEHITZEAREN ONDORIOZ SUBJEKTU PASIBOAK ETEKINA LORTZEA BADA HAIEN ZERGA-EGITATEA?

- 34a) Tasak.
- 34b) Prezio publikoak.
- 34c) Kontribuzio bereziak.
- 34d) Guztiak dira zuzenak.

35 HIRI-LURREN BALIOAREN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA...

- 35a) Zuzeneko tributua da, derrigorrez ezarri beharrekoa.
- 35b) Zuzeneko tributua da, aukeraz ezarri beharrekoa.
- 35c) Zeharkako tributua da, derrigorrez ezarri beharrekoa.
- 35d) Zeharkako tributua da, aukeraz ezarri beharrekoa.

36 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN, TOKI-ERAKUNDEEN ESKUMENEI DAGOKIONEZ...

- 36a) Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak 2. xedapen gehigarrian aurreikusitakoarekin bat etorrita, udalerriek izan ditzakete Eusko Legebiltzarraren legeak edo Batzar Nagusien foru-arauak, dagozkien eskumen-esparruetan, propiotzat esleitutako eskumenak, baita Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 25. artikuluan adierazitako gaietatik kanpo ere.
- 36b) Toki Ogasunak arautzeko Legearen testu bateginak 8. xedapen gehigarrian aurreikusitakoarekin bat etorrita, udalerriek lege esleitutako eskumen propioak baino ez dituzte izango, Gorte Nagusiek edo Eusko Legebiltzarrak, dagozkien eskumen-esparruetan, emandako legeez, hain zuzen.
- 36c) Toki Ogasunak arautzeko Legearen testu bateginak 8. xedapen gehigarrian aurreikusitakoarekin bat etorrita, udalerriek izan ditzakete Eusko Legebiltzarraren legeak edo Batzar Nagusien foru-arauak, dagozkien eskumen-esparruetan, propiotzat esleitutako eskumenak, baita Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 25. artikuluan adierazitako gaietatik kanpo ere.
- 36d) Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak 2. xedapen gehigarrian aurreikusitakoarekin bat etorrita, udalerriek lege esleitutako eskumen propioak baino ez dituzte izango, Gorte Nagusiek edo Eusko Legebiltzarrak, dagozkien eskumen-esparruetan, emandako legeez, hain zuzen.

37 PROPIOAK EZ DIREN ESKUMENAK ETA ESKUORDETZE BIDEZ ESLEITUTAKOAK EZ DIREN ESKUMENAK BALIATU AHAL IZATEKO TOKI-ERAKUNDEEK:

- 37a) Arauzkoak eta lotesleak dira bi txosten hauek: bikoiztasunik ez dagoela adierazten duen txostena, gaiaren arabera eskuduna den administrazioak emandakoa; eta eskumen berriari buruzko finantza-iraunkortasunaren gaineko txostena, toki-erakundearen lurralde historikoko Foru Aldundiak emandakoa Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan.
- 37b) Arauzkoak dira bi txosten hauek: bikoiztasunik ez dagoela adierazten duen txostena, gaiaren arabera eskuduna den administrazioak emandakoa; eta eskumen berriari buruzko finantza-iraunkortasunaren gaineko txostena, toki-erakundearen lurralde historikoko Foru Aldundiak emandakoa Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan. Loteslea finantza-iraunkortasunari buruzko txostena da, bakarrik.
- 37c) Aldez aurrekoak eta borondatezkoak dira bi txosten hauek: bikoiztasunik ez dagoela adierazten duen txostena, gaiaren arabera eskuduna den administrazioak emandakoa; eta eskumen berriari buruzko finantza-iraunkortasunaren gaineko txostena, toki-erakundearen lurralde historikoko Foru Aldundiak emandakoa Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan.
- 37d) Arauzkoak eta lotesleak dira bi txosten hauek: bikoiztasunik ez dagoela adierazten duen txostena, gaiaren arabera eskuduna den administrazioak emandakoa; eta eskumen berriari buruzko finantza-iraunkortasunaren gaineko txostena, toki ogasunen gaietan Estatuko Administrazio Orokorreko organo eskudunak emandakoa beti.

38 TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN LEGEAREN 25. ARTIKULUAREN ARABERA, UDALERRIAK, BETI, GAI HAUETAKO ESKUMEN PROPIOAK BETEKO DITU:

- 38a) Ingurumen-babesa.
- 38b) Gizarte-zerbitzuak, aukera-berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko zerbitzuak.
- 38c) Abere-hiltegiak.
- 38d) Udaltzaingoa, babes zibila, suteei aurrea hartzea eta suteak itzaltzea.

39 ZEHAPEN-PROZEDURAREN PRINTZIOAK DIRELA-ETA, ADIERAZI ZEIN DEN BAIEZTAPEN ZUZENA.

- 39a) Zehatzeko ahalaz baliatzeko lege ezarritako prozedura bete beharko da.
- 39b) Zehapen-ahalaren gauzapena arautzen duten prozedurek ondo bereizi behar dituzte instrukzio fasea eta zehapen-fasea, baina ez zaie derrigorrez organo desberdinei agindu behar.
- 39c) Zehatzeko ahalaz baliatzeko lege edo erregelamenduz ezarritako prozedura bete beharko da.
- 39d) Ustezko erantzulearen eskubideen artean ez dago berari instrukzio-egilea nor den jakinarazteko eskubidea.

40 ZEHATZEKO AHALAREN PRINTZIOA DELA-ETA, ADIERAZI ZEIN DEN BAIEZTAPEN ZUZENA:

- 40a) Proporzionaltasun-printzipioaren arabera, zein zehapen jarri erabakitzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: intenzionalitatea, eragindako kalteen izaera eta arau-haustea berriro egin den.
- 40b) Atzera-eraginik ezaren printzipioaren arabera, zehapen-xedapenek ez daukate inoiz atzera-eraginik.
- 40c) Erantzukizun-printzipioaren arabera, pertsona fisikoei bakarrik ezarriko zaizkie zehapenak administrazio arau-hausteen ondorioz, eta bakarrik doluz direnean horien erantzule.
- 40d) "Non bis in idem" printzipioaren arabera, zehapen penala jaso duten egitateei ezin zaie administrazio-zehapenik ezarri, subjektua eta funtsa zehatutako berberak direla ikusten bada; baina, administrazio-zehapena jar dakizkieke administrazio-zehapena jaso duten egitateei, subjektua eta funtsa zehatutako berberak direla ikusten bada.

41 ZEHAPEN-ARLOAN, UDALERRIEK ESKUMENAK DITUZTE...

- 41a) Arau-hausteak eta zehapenak ezartzeko ordenantzen bidez, baina bakarrik sektore-lege batean, Estatuko legea izan edo EAeko legea izan, aurreikusita badaude.
- 41b) Arau-hausteak eta zehapenak ezartzeko ordenantzen bidez, betiere sektore-arautegi espezifikorik izan ezean, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko Legeak testu finkatutako irizpideekin bat etorrira.
- 41c) Arau-hausteak eta zehapenak ezartzeko ordenantzen bidez, haiek babestuko dituen lege baten babesaren beharrik gabe, Konstituzioak toki-erakundeei bermatzen dien toki-autonomiaren printzipioa aplikatuz.
- 41d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

42 ZEHAPEN-EBAZPENAK:

- 42a) Betearazleak dira irmoak diren unetik aurrera.
- 42b) Betearazleak dira administrazio-prozedura bati amaiera ematen diotenean.
- 42c) Betearazleak dira administrazio-bidea amaitzen dutenean.
- 42d) Betearazleak dira argitaratzen direnean.

43 HONAKO DIRU-LAGUNTZA HAUEK ZUZENENAN EMAN AHALKO DIRA:

- 43a) Orokorki, interes publikoko, sozialeko, ekonomikoko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen dituzten diru-laguntzak, edo modu egokian justifikatutako beste batzuk.
- 43b) Edozein diru-laguntza, baldin eta diru-laguntza ematetik datozen ekonomia-erakundearen obligazioei erantzuteko kreditu egokia eta nahikoa dagoenaren aldeko txostena egiten badu organo kontu-hartzaileak.
- 43c) Inola ere ez; diru-laguntzak norgehiagoka-araubidean baino ezin dira eman.
- 43d) Toki-erakundeen aurrekontuetan izendapen nominatiboa dutenak.

44 DIRU-LAGUNTZAK NORGEHIAGOKA-ARAUBIDEAN EMATEKO PROZEDURAN:

- 44a) Ebazpena eman eta jakinarazteko epea ez da hiru hilabetetik gorakoa izango, baldin eta lege-mailako arau batek hori baino epe luzeagoa ezartzen ez badu, edo Europako erkidegoko arauetan bestelakorik ezarrita ez badago.
- 44b) Gehieneko epea igaro bada eta ebazpena jakinarazi ez bada, interesdunek zilegi dute diru-laguntza eskaria administrazio-isiltasunez ezetsitzat jotzea, prozedura beti hasten baita ofizioz.
- 44c) Gehieneko epea igaro bada eta ebazpena ez bada jakinarazi, isiltasuna positiboa da, interesdunak eskatuta hasitako prozedura baita.
- 44d) Prozedura ofizioz hasten bada, deialdi publikoa beharrezkoa da; interesdunak eskatuta hasitako prozedura bada, ez.

45 NOLA DAUDE BANATUTA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKI-ERAKUNDEETAKO LANGILEAK?

- 45a) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioako funtzionarioak, behin-behineko langileak eta langile lan-kontratudunak.
- 45b) Funtzionarioak eta behin-behineko langileak.
- 45c) Funtzionarioak eta langile lan-kontratudunak, bakarrik.
- 45d) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, behin-behineko langileak eta langile lan-kontratudunak.

46 TOKI-ERAKUNDEETAKO BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK DIRELA-ETA, ADIERAZI BAI EZTAPEN OKERRA:

- 46a) Behin-behineko langileen kopurua, ezaugarriak eta ordainsariak korporazio bakoitzeko osoko bilkurak erabakiko ditu, agintaldiaren hasieran. Kopuruari dagokionez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko Legeak finkatutako ditu mugak.
- 46b) Behin-behineko langileak izendatu eta kargutik kentzea alkateari edo toki-erakundearen lehendakariari dagokio. Betiere, kargua utziko dute automatikoki konfiantzako edo aholkularitzako zeregina eskaintzen dion agintariak kargua uzten duenean.
- 46c) Toki-erakunde guztiek izango dituzte bere plantilletan behin-behineko langileentzako lanpostuak, langile horien konfiantzako eta aholkularitzako eginkizunak funtsezkoak baitira.
- 46d) EAeko lurralde historikoetako foru-organismoek zehaztuko dituzte, bakoitzak bere lurralde-eremuan, toki-erakundeen zerbitzupeko behin-behineko langileen guztirako ordainsarien gehieneko mugak.

47 DIRUZAINZA-LANA NAHITAEZKO FUNTZIO PUBLIKOA DA TOKI-KORPORAZIO GUZTIETAN. ADMINISTRAZIO-ERANTZUKIZUN HORI GORDETA DAGO GAIKUNTZA NAZIONALA DUTEN TOKI-ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIOEN ESKALAREN BARRUAN AZPIESKALA HONETAKO FUNTZIONARIOENTZAT:

- 47a) Idazkaritzakoentzat.
- 47b) Kontuhartzailtza-Diruzaintzakoentzat.
- 47c) Idazkaritza-Kontuhartzailtzaentzat.
- 47d) Erantzun zuzenak b) eta c) dira.

48 TOKI-ESKUMENEKO ZERBITZU PUBLIKOEN ZUZENEKO KUDEAKETARI DAGOKIONEZ...

- 48a) Merkataritza-sozietatea eta tokiko erakunde autonomo baten bidezko kudeaketa bakarrik baliatu ahal izango da, horretarako berariaz egindako justifikazio-memoria bidez egiaztatzen bada toki-erakundearen eta enpresa-erakunde publikoaren kudeaketa-moduak baino iraunkorragoak eta eraginkorragoak direla.
- 48b) Merkataritza-sozietatea eta enpresa-erakunde publiko baten bidezko kudeaketa bakarrik baliatu ahal izango da, horretarako berariaz egindako justifikazio-memoria bidez egiaztatzen bada toki-erakundearen eta tokiko erakunde autonomoaren kudeaketa-moduak baino iraunkorragoak eta eraginkorragoak direla.
- 48c) Tokiko erakunde autonomo baten bidezko kudeaketa bakarrik baliatu ahal izango da, horretarako berariaz egindako justifikazio-memoria bidez egiaztatzen bada toki-erakundearen, merkataritza-sozietatearen eta tokiko erakunde autonomoaren kudeaketa-moduak baino iraunkorragoak eta eraginkorragoak dela.
- 48d) Aurreko erantzunetarikoa bat ere ez da zuzena

49 TOKI-KORPORAZIOEN OSOKO BILKURAK...

- 49a) Hilero egingo du gutxienez ohiko bilkura 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako udaletan eta probintzietako aldundietan; bi hilabetetik behin egingo du 5.001 biztanletik 10.000 biztanle arteko udalerrietako udaletan; eta hiru hilabetetik behin, 5.000 biztanle arteko udalerrietan.
- 49b) Hilero egingo du gutxienez ohiko bilkura 50.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako udaletan eta probintzietako aldundietan; bi hilabetetik behin egingo du 5.001 biztanletik 50.000 biztanle arteko udalerrietako udaletan; eta hiru hilabetetik behin, 5.000 biztanle arteko udalerrietan.
- 49c) Hilero egingo du gutxienez ohiko bilkura 100.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako udaletan eta probintzietako aldundietan; bi hilabetetik behin egingo du 5.001 biztanletik 100.000 biztanle arteko udalerrietako udaletan; eta hiru hilabetetik behin, 5.000 biztanle arteko udalerrietan.
- 49d) Hilero egingo du gutxienez ohiko bilkura 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako udaletan eta probintzietako aldundietan; bi hilabetetik behin egingo du 5.001 biztanletik 20.000 biztanle arteko udalerrietako udaletan; eta hiru hilabetetik behin, 5.000 biztanle arteko udalerrietan.

50 HONAKO HAUETAKO BAT EZ DA LURRALDE ANTOLAMENDURAKO GIDALERROEN FUNTZIOA:

- 50a) Lurraldean operatzen duten eragile publiko eta pribatuen jarduera ekonomikoak eta sozialak lurralde horretan finkatzeko prozesuak arautu eta bideratuko dituzten arauak nahiz irizpideak ezarri modu globalizatuan eta lotuan, EAeko politika edota plan ekonomikoekin bat etorriz. Hori guztia, Euskadirentzat interes orokorreko lurralde-oreka bermatzeko eta lurraldeko gune egokietarako jarduera ekonomikoa erakarriko duten baldintza egokien sorrera bermatzeko.
- 50b) Lurralde eta espazioak antolatzea eta, horien erabilerari dagokionez, erreferentzia-esparrua eratzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean jardun behar duten herri-administrazio desberdinen arloko politikak egiteko eta gauzatzeko, bai eta foru-aldundien eta udalen hirigintzako jarduerarako ere, horien guztien arteko koordinazio eta bateragarritasun egokia bermatzekotan.
- 50c) Aurreikusitako beste Autonomia Erkidego batzuekin edo Estatuarekin elkarlanean zer lurralde-ekintza gauzatu beharko diren.
- 50d) Gidalerroak zehaztea ingurumena babesteko, natura babesteko, paisaia eta elementu naturalak eta artifizialak babesteko, kultura-ondarearekin lotutakoak bereziki.

51 HONAKO BAI EZTAPEN HAUETATIK, ZEIN DA ZUZENA?

- 51a) Plan partzialak lurzoru urbanizagarri sektorekatu gisa zehazturiko sektoreen antolaketari azken bultzada emateko dira, plan orokorrean edo sektorizatze-planean hala ezartzen denean.
- 51b) Plan partzialak lurzoru urbanizagarri sektorekatu gisa zehazturiko sektoreen antolaketari azken bultzada emateko dira, plan orokorrean hala ezartzen denean.
- 51c) Plan partzialak lurzoru ez urbanizagarri sektorekatu gisa zehazturiko sektoreen antolaketari azken bultzada emateko dira, plan orokorrean edo sektorizatze-planean hala ezartzen denean.
- 51d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

52 HONAKO BAIEZTAPEN HAUETATIK, ZEIN DA ZUZENA?

- 52a) Plan orokorrak behin betiko onartzeko eskumena udalei dagokie 7.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, eta foru-aldundiei gainerakoetan.
- 52b) Plan orokorrak behin betiko onartzeko eskumena udalei dagokie 5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, eta foru-aldundiei gainerakoetan.
- 52c) Plan orokorrak behin betiko onartzeko eskumena udalei dagokie 7.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, eta Eusko Jaurlaritzari gainerakoetan.
- 52d) Plan orokorrak behin betiko onartzeko eskumena udalei dagokie 7.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, eta Eusko Jaurlaritzari gainerakoetan.

53 PLAN OROKORRA BEHIN-BEHINEAN ONARTU ONDOREN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO BATZORDERA BIDALIKO DA HONEK TXOSTENA EMAN DEZAN. TXOSTEN HORI...

- 53a) Loteslea izango da eta ezingo da plan orokorra izapidetu hura eman arte.
- 53b) Nahitaezkoa da baina ez loteslea.
- 53c) Loteslea da, baina Batzordeak plana jaso eta hiru hilabeteko epean txostena eman ez badu, aurrera egin ahal izango da izapideekin.
- 53d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

54 HIRIGINTZAKO PLANAK ETA HAIEN ALDAKETAK ETA BERRIKUSPENAK, ARGITARATU AURRETIK, UDALEK IGORRI EGINGO DITUZTE ERREGISTROAN SARTZEKO. ZEIN ERREGISTROTAN?

- 54a) Eusko Jaurlaritzaren erregistroan.
- 54b) Kasuan kasuko foru-aldundiaren erregistroan.
- 54c) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen erregistroan.
- 54d) Plangintzaren Euskal Erregistroan.

55 ARAUBIDE JURIDIKOARI ETA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEARI BURUZKO 30/92 LEGEAK 71 BIS ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREKIN BAT ETORRITA, ERANTZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENAK ETA ALDEZ AURRETIKO KOMUNIKAZIOEN EREDUAK:

- 55a) Aldi oro argitaratuta eta eguneratuta izango dituzte Administrazio Publikoek
- 55b) Onartutako ereduak dagokion Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira urtero.
- 55c) Foru aldundiek argitaratuko dituzte.
- 55d) Estatuko Administrazio Orokorrak izango ditu uneoro eguneratuta eta argitaratuta.

56 HONAKO ZERBITZU HAUEK UDALERRI GUZTIETAN EMAN BEHARKO DIRA:

- 56a) Argiteria publikoa, hilerria, hondakinen bilketa, bide-garbiketa, etxeetan edateko ura hornitzea, estolderia, populazio-guneetarako sarbidea eta bide publikoetan zoladura jartzea.
- 56b) Argiteria publikoa, hilerria, hondakinen bilketa, bide-garbiketa, etxeetan edateko ura hornitzea, estolderia, populazio-guneetarako sarbidea, hondakinen tratamendua eta bide publikoetan zoladura jartzea.
- 56c) Argiteria publikoa, hilerria, hondakinen bilketa, bide-garbiketa, etxeetan edateko ura hornitzea, estolderia, parke publikoa eta bide publikoetan zoladura jartzea.
- 56d) Argiteria publikoa, hilerria, hondakin-bilketa, bide-garbiketa, edateko uraren etxeetako hornidura, estolderia, populazio-guneetarako sarbidea, suteak itzaltzeko zerbitzua eta bide publikoen zoladura.

57 ONDORENGO ESKUMENETATIK, ZEIN EZ DAGOKIO ALKATEARI?

- 57a) Udalaren erabakiak argitaratzeko agintzea, eta erabakiok bete eta betearaztea.
- 57b) Enplegu publikoaren eskaintza onartzea.
- 57c) Lizentziak ematea.
- 57d) Langileen eta lanpostuen zerrenda onartzea.

58 JARRAIAN ADIERAZITAKO OSOKO BILKURAREN ESKUMENETATIK, ZEIN EMAN AHAL ZAIO ESKUORDETZAN ALKATEARI EDO TOKIKO GOBERNU-BATZARRARI?

- 58a) Udalerriaz gaindiko antolakundeetan parte-hartzeari buruzko erabakiak hartzea.
- 58b) Plangintza orokorrari hasierako onarpena ematea, eta hirigintza-leggedian aurreikusitako antolamenduko planen eta gainerako tresnen gaineko udal-izapideen amaiera onartzea, baita tresna horietako edozein aldatzea helburu duten hitzarmenak ere.
- 58c) Akzio judizialak eta administratiboak baliatzea eta korporazioaren defentsa egitea osoko bilkuraren eskumeneko gaitetan.
- 58d) Herri-jabariko ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea.

59 OSOKO BILKURAK NOIZ EGINGO DU BILKURA BEREZIA?

- 59a) Lehendakariak erabakitzen duenean edo korporazioko kideen legezko kopuruaren heren batek gutxienez eskatzen duenean, baina zinegotzi batek ere ezin izango du eskatu hirutan baino gehiagotan urtean.
- 59b) Lehendakariak erabakitzen duenean edo korporazioko kideen legezko kopuruaren laurden batek gutxienez eskatzen duenean, baina zinegotzi batek ere ezin izango du eskatu hirutan baino gehiagotan urtean.
- 59c) Lehendakariak erabakitzen duenean edo korporazioko kideen legezko kopuruaren bosten batek gutxienez eskatzen duenean, baina zinegotzi batek ere ezin izango du eskatu hirutan baino gehiagotan urtean.
- 59d) Lehendakariak erabakitzen duenean edo korporazioko kideen legezko kopuruaren erdiak gutxienez eskatzen duenean, baina zinegotzi batek ere ezin izango du eskatu hirutan baino gehiagotan urtean.

60 JARRAIAN ZEHAZTUTAKO AKORDIOETAKO BAT HARTZEKO GEHIENGO SOILA BEHAR DA. ZEIN DA?

- 60a) Finantza edo kreditu eragiketak eta kita eta itzaroteko emakidak onestea, haien zenbatekoa aurrekontuaren baliabide arrunten % 10etik gorakoa bada.
- 60b) Herri-ondasunen aprobetxamendua edozein tituluz lagatzea.
- 60c) Ordenantza fiskalak onartzea.
- 60d) Ondasunak zein zerbitzuak bost urte baino gehiagorako emakidan ematea, beti ere, horien zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten %20 gainditzen badu.

ORDEZKO GALDERAK:

61 TOKI-AUTONOMIAREN PRINTZIPIOA DELA-ETA, ADIERAZI BAIEZTAPEN ZUZENA:

- 61a) Udalerriek helegiteak jarri ditzakete Konstituzio Auzitegian toki-autonomiaren defentsan, baina Toki-Administrazioko Batzorde Nazionalaren bitartez bakarrik.
- 61b) Udalerriek eta probintziek helegiteak jarri ditzakete zuzenean Konstituzio Auzitegian toki-autonomiaren defentsan.
- 61c) Printzipio hori udalerriei baino ez zaie aitortzen, ez beste toki-erakundeei.
- 61d) Toki-erakunde guztiei aitortzen zaie printzipio hori.



62 DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN DATUAK BABESTEKO ERREGISTROA ETA TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN APIRILAREN 2KO 7/1985 LEGEAREN 25. ARTIKULUA KONTUAN HARTUTA, ZER NOLAKO FITXATEGIAK DEKLARATZEN DITUZTE TOKI-ERAKUNDEEK?

- 62a) Zerbitzu sozialen prestazioari buruzko datuak bakarrik (laguntza eta gizarteratzea).
- 62b) Kirol-instalazioetako kide eta erabiltzaileei, higieziei, landa-jabetzari eta etxeko animaliei buruzko datuak bakarrik.
- 62c) Legezko eskumenak betetzean sortzen dituzten fitxategi guztiak, baldin eta datu pertsonalak biltzen badituzte.
- 62d) Biztanleen udal-eroldaren eta tasa eta zergen kudeaketako datuak bakarrik.

63 HERRI ADMINISTRAZIOEN ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN LEGEAK 48. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, EPE-KONTUETARAKO EGUN BAT BALIODUN EDO BALIOGABETZAT JOTZEAK ERAGINA DU HERRI-ADMINISTRAZIOETAKO LANTOKIETAKO JARDUERAN, LAN-ORDUEN ANTOLAKETAN ETA HERRITARREK ERREGISTROEZ BALIATZEKO DUTEN ESKUBIDEAN.

- 63a) Egia da.
- 63b) Ez da egia.
- 63c) Zenbait kasutan.
- 63d) Bat ere ez da egiazkoa.

64 HONAKO HAUETATIK, ZEIN DA ZEHARKAKO ZERGA?

- 64a) Ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- 64b) Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga.
- 64c) Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga.
- 64d) Hiri-lurren balio-gehitzearen gaineko zerga.

65 OSOKO BILKURA BEREZIRAKO ETA PREMIAZKORAKO DEIA, ZENBAT DENBORA LEHENAGO EGIN BEHAR DA?

- 65a) Baliiodun egun bat.
- 65b) Egutegiko egun bat
- 65c) Bi egun natural
- 65d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

66 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO EAEKO LEGEAREN ARABERA, NOIZ EGONGO DA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ORDEZKARITZA OREKATUA?

- 66a) Lau kidetik beherako epaimahaietan sexu biak ordezkaturata daudenean.
- 66b) Sexu biak ordezkaturata daudenean, baina bataren kopurua bestearen bikoitza izan gabe.
- 66c) Sexu biak modu berean ordezkaturata daudenean edo ordezkaritza-berdintasunera hurbiltzen diren portzentajeetan.
- 66d) Aurreko kasu guztietan.